



## Harro! Euskal Herrietako Transmaribollo Plataforma: MANIFESTAZIOA IRAILAK 21



Harro! Euskal Herrietako Transmaribollo Plataformak larunbat honetan, hilak 21, manifestazioa deitu du Bilbon EPOAk (European Pride Organisers Association) irailaren 19tik 23ra burutuko duen bilerari erantzuna emateko. Bilera horretan, besteak beste, 2022ko Europride-aren egoitza zein izango den erabakiko da.

Harro! Plataformak deitu duen manifestazioaren helburua EPOA bezalako erakundeek LGTBIQ+ kolektiboarekiko duten jarrera salatzea eta agerian uztea izango da. Eredu maskulino, txuri, eta zis elitista, asimilazionista eta merkantilista baten aurrean, bestelako ereduak aldarrikatzen dituzte plataforma hau osatzen duten elkarte ezberdinek.

EPOA bezalako erakundeek beraien eredu *normatibo* horretatik kanpo gelditzen diren pertsonak, izaerak, bollerak, bizitzak, trans\*-ak, gorputzak, koloreak, maritxuak, prekaritateak, lumak... baztertu egiten dituzte. Eta, zoritxarrez, Harro! Plataformak salatzen duen bezala, euskal erakundeek bazterketa horrekin bat egin dute eredu hori beraiena egin duten momentuan. Interes ekonomiko eta politikorako nahi gaituzte soilik, berehalakoa, kolektiboak borrokatzen eta aldarrikatzen dituen eskubideen ginetik salto eginez. Txin-txin, txin-txin.

Neoliberalismoak guztia irentsi duen garaiak bizi ditugu. Hezkuntzan lanean jarduten dugun eragile bezala, **STEILAS**en ondo dakigu hori. LGTBIQ+ kolektiboa eta hau osatzen dugunok ere ez gara kapitalismoaren hatzaparretatik kanpo gelditu. Eraso horien aurrean erantzun tinko eta bateratu bat emateko intentzioarekin sortu zuten Harro! Plataforma elkarte ezberdinek, sareak sortuz eta kolektiboa lotuz, ozen aldarrikatzeko:

### **HARRO EZ DA EUROPRIDE! GURE IZENEAN EZ!**

**STEILAS** sindikatuko LGTBIQ+ lan taldeak Harro! Plataformak hilaren 21ean deituriko manifestazio orokorra babestu eta bertaratzeko deia egin nahi dizue ohar honen bitartez. Bilboko Arriaga plazan izango gara, arratsaldeko 17:30etan.

Euskal Herrian, 2019ko irailaren 17an.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus